


# 2018

## TXOSTENA MEMORIA

elkarkidetza®
pentsioak
enpleguko BGAE
EPSV de empleo

Nazioarteko politikako aktore nagusien portaera geoestrategikoek nabarmen eragin dute 2018ko ekitaldian eta merkatuen ezegonkortze ekonomikoa eta ia aktibo mota guztien portaera txarra eragin ditu.

Egoera horretan, sei urtez jarraian errentagarritasun positiboak eduki eta gero, aurten -% 2,31ko errentagarritasuna lortu du Elkarkidetzak. Batez besteko enplegu planen eta aktibo ezberdinen indizeekin alderatuta guztien gainetik kokatzen garela ikus dezakegu.

Inbertsioak sustatzen jarraitzen dugu, gobernu korporatibo egokiarekin, ingurumeneko irizpideak eta sozialak aintzat hartuaz eta herrialdearen garapenean lagunduko duten euskal enpresetan inbertsioak egiten ditugu.

Bestalde, azpimarratu behar da, aurten, AON HEWITT aholkularitzak datozen hamar urterako aurreikusitako aktiboaren eta obligazioaren eboluzioaren azterketa bat egin duela. Azterketa horrek hobetu beharreko alderdiak detektatzen eta erabakiak hartzen lagundu digu, Elkarkidetzaren jasangarritasuna indartu eta arriskuak minimizatzeko xedez.

Gure bazkide-taldea handitzen eta gugan jarritako konfiantza hobetzen doaz.

Gure xedea pentsio-sistema osagarri bat sustatzea da, justua, nahikoa eta jasangarria. Sistema horren diseinua negoziazio kolektiboan oinarritzen da, erakundeek eta bazkideek beren lanbide-karreran zehar partekatutako ekarpenekin eta errenta moduko prestazioei lehentasuna emanez.

En el desenlace del ejercicio 2018 han influido notablemente los comportamientos geoestratégicos de los principales actores de la política internacional que han provocado una desestabilización económica de los mercados y un mal comportamiento de prácticamente todas las categorías de activos.

En este contexto y tras seis años sucesivos de rentabilidades positivas Elkarkidetza ha obtenido en este año una rentabilidad del -2,31 %. Si nos comparamos con la media de los planes de empleo y con los índices de los diferentes activos se observa que nos situamos muy por encima de todas ellas.

Seguimos impulsando inversiones con un adecuado gobierno corporativo, con criterios medioambientales y sociales y realizamos inversiones en empresas vascas que contribuyan al desarrollo del país.

En otro orden, es necesario destacar que este año se ha realizado, por la firma AON HEWITT, un estudio para los próximos diez años que determina la evolución esperada del activo y de la obligación. Dicho estudio nos ha permitido detectar aspectos a mejorar y adoptar decisiones con el objetivo de contribuir a minimizar los riesgos y fortalecer la sostenibilidad de Elkarkidetza.

Nuestro colectivo de personas asociadas sigue aumentando y mejora la confianza depositada en nosotros.

Nuestro objetivo es y sigue siendo promover un sistema de pensiones complementario justo, suficiente y sostenible en el tiempo, basado en la negociación colectiva, con aportaciones compartidas entre instituciones y personas asociadas a lo largo de sus carreras profesionales, donde se priorizan las prestaciones en forma de renta.



**Sainz de la Maza Arrola, Karmelo**
Presidentea / Presidente



**Aldasoro Iturbe, Amaia**
Presidenteordea / Vicepresidenta





## BAZKIDE TALDEA

2018an, Elkarkidetzaren bazkide-taldean 1.102 alta berri egon dira, eta ekarpenik egin gabe zeuden 206 pertsonek berriro kotizatu dute.

Aktiboen taldea 22.412 pertsonek osatzen dute, horietatik 19.036 ekarpenak egiten dituztenak dira eta 3.376 ekarpenik egiten ez dutenak.

Ekarpenik egiten ez bada, ezinezkoa da biziarteko pentsioa egonkortzeko nahikoa erretiro kapital sortzea. Bestalde, ezintasun eta heriotza kasuetan kapital osagarriaren estaldura galtzen da.

Aktiboen taldean batez besteko adina 52,5 urtekoa da, eta % 50,94 gizonezkoak eta % 49,06 emakumezkoak dira.

Pentsiodunen taldea 5.875 pertsonek osatzen dute, % 57,55 gizonezkoak eta % 42,45 emakumezkoak dira eta batez beste 70,70 urte dituzte.

## COLECTIVO ASOCIADO

En lo relativo al colectivo de personas asociadas, durante el año 2018, Elkarkidetza ha incorporado 1.102 altas nuevas a la Entidad, y han vuelto a cotizar 206 personas que estaban sin realizar aportaciones.

El colectivo de activos asciende a 22.412 personas, de las cuales 19.036 aportan y 3.376 no realizan aportaciones.

No realizar las aportaciones impide generar un capital de jubilación suficiente para consolidar una pensión vitalicia. Por otra parte, en los supuestos de incapacidad y fallecimiento se pierde la cobertura del capital adicional.

La edad media del colectivo de activos se sitúa en los 52,5 años, que está formado por un 50,94 % de hombres y un 49,06 % mujeres.

El colectivo de pensionistas lo forman 5.875 personas, distribuidas en un 57,55 % de hombres y 42,45 % de mujeres y con una edad media de 70,70 años.

## 2018an zehar eragindako prestazioak

811 pentsiodun gehiago, xehetasun hauekin :

## Prestaciones causadas durante el año 2018

Los nuevos pensionistas del año son 811, su desglose es:




Prestazioen % 33ak ez du biziarteko pentsioa egonkortzeko nahikoa kapital sortu. Horregatik da garrantzitsua ekarpenak etengabe eta epe luzean egitea.

Prestazioen % 67a errentan kobratu da, oso-osorik edo zati batean. Erretiroaren prestazioan oinarrituta, talde honek batez beste urteroko biziarteko 3.178 €-ko pentsioa eta 17.466 €-ko kapitala kobratu ditu.

El 33 % de las prestaciones causadas no han generado un capital suficiente para consolidar una pensión vitalicia. De ahí la importancia de realizar aportaciones sin interrupciones y durante un período largo.

El 67 % de prestaciones se han cobrado en renta, total o parcialmente. Centrándonos en la prestación de jubilación, este colectivo de media ha cobrado una pensión vitalicia anual de 3.178 € y un capital de 17.466 €.

### Elkarkidetza gomendatuko nuke

2018ko inkestan, babes-maila % 94,46koa izan zen pentsiodunen taldean eta % 96,66koa, berriz, aktiboen taldean. Azken datu hori inkesta guztietan lortu dugun altuena izan da.

### Recomendaría Elkarkidetza

El grado de apoyo obtenido en la encuesta realizada en 2018 es del 94,46 % del colectivo pensionista y de un 96,66 % del colectivo de activos, habiendo sido este último dato el más alto de nuestra historia.

### Ekarpenak

Kuoten bidez, 44 milioi euroko diru-sarrerak lortu ditugu, eta, beraz, % 1,61eko igoera izan dugu aurreko urtearen aldean, 2014an hasitako goranzko joerari eutsiz.

Gogoratu nahi dugu erretiratzeko egunean 40 urteko ekarpenera iristen ez diren edo soldata baino ekarpen-oinarri txikiagoa duten pertsonei ekarpen osagarriak egiteko aukera ematea planteatu zela 2015ean. Aurten, 69 pertsonek batez beste 135,19 euro/hileroko ekarpen osagarriak egin dituzte.

### Aportaciones

El ingreso por cuotas ha ascendido a 44 millones de euros con un incremento del 1,61 % sobre el año anterior, continuando con la senda alcista iniciada en 2014.

Queremos recordar que en 2015 se abrió la posibilidad de realizar aportaciones adicionales a las personas que no alcancen 40 años de aportación en la fecha de su jubilación o que la cuantía de su base de aportación sea inferior a su salario. Este año 69 personas han realizado aportaciones adicionales, cuya media es 135,19 euros mensuales.

### Prestazioak eta beste ordainketa batzuk

Prestazioen eta beste ordainketen zenbatekoa 33 milioi eurokoa da.

### Prestaciones y otros abonos

El importe de prestaciones y otros abonos asciende a 33 millones de euros.








## KUDEAKETA EKONOMIKOA

### Finantza-merkatuen bilakaera 2018an

Urte hasierako itxaropenak onak ziren, baina 2018a oso urte txarra izan da inbertitzaileentzat. Ia-ia aktiboen kategoria guztiek galerak jasan dituzte: errenta aldakorra, gobernu-bonoak, errenta finko korporatiboa, lehengaiak, hedge funds. Duela asko ez zela horrelakorik gertatzen. Abendua bereziki negatiboa izan da (Ameriketako Estatu Batuen burtsaren hilabeterik okerrena 1931az geroztik), eta, ondorioz, inbertitzaile gehienek urtea errentagarritasun negatiboekin itxi behar izan dute.

Merkatuen portaera txarraren arrazoiak hauek izan dira:

- Desazelerazio ekonomikoa eta zikloaren amaieran sartzearen beldurra
- Banku zentral murriztaileagoak
- Tirabira komertzialak AEBren eta Txinaren artean
- Ezegonkortasun eta ziurgabetasun politikoak Europan

## GESTIÓN ECONÓMICA

### Evolución de los mercados financieros en 2018

Las perspectivas al comienzo de año eran buenas y, sin embargo, 2018 ha sido un año muy negativo para los inversores. Prácticamente todas las categorías de activos han sufrido pérdidas: renta variable, bonos del gobierno, renta fija corporativa, materias primas, hedge funds. Hacía años que no ocurría esto. El mes de diciembre ha sido especialmente negativo (el peor en bolsa americana desde 1931, por ejemplo), lo que ha llevado a la mayoría de los inversores a cerrar el año en rentabilidades negativas.

Los motivos que han llevado a este mal comportamiento de los mercados han sido los siguientes:

- Desaceleración económica y temor a estar entrando en la parte final del ciclo
- Bancos Centrales más restrictivos
- Tensiones comerciales entre EEUU y China
- Inestabilidad e incertidumbre políticas en Europa

### 2018ko jardueraren laburpena

Ziurgabetasun ekonomikoen eta finantza-aktiboen balorazio altuak ikusita, errenta aldakorraren eta hari lotutako produktu egituratuen eraginpean jarraitzea erabaki zen, baina neurri txikiagoan.

Europaren moneta-politika oso laxoa da oraindik ere, eta kreditu-kalifikazio handieneko gobernuko bonuen barne-errendimenduko tasak oso baxu mantentzen ditu. Beraz, epe luzeko errentagarritasun arriskuaren ikuspegitik aktibo horiek erostea ez da oso erakargarria. Hori dela eta, 2018an zehar ez zen kasik horrelako aktibo motarik erosi; izatekotan ere, Italiako zorraren eragiketa zehatzak eta hipoteka titulizazioetan eragiketa txikiren bat.

Inbertsiorako bi kategoria nagusien erakargarritasun faltak zorroan likidezia areagotu zuen, merkatuetako zuzenketek inbertsiorako aukera berriak emango zituzten itxaropenarekin.

### Resumen de actuación en 2018

Ante las incertidumbres económicas y dadas las altas valoraciones de los activos financieros, se optó por reducir ligeramente exposición a la renta variable y a los productos estructurados ligados a la misma.

La política monetaria aún muy laxa en Europa mantiene las TIR de los bonos gubernamentales de máxima calificación crediticia muy bajas, de forma que la compra de estos activos no resulte muy atractiva desde una perspectiva de rentabilidad-riesgo a largo plazo. Por ello apenas se realizaron a lo largo de 2018 compras de esta clase de activo, más allá de operaciones puntuales en deuda italiana y alguna operación menor en titulizaciones hipotecarias.

La falta de atractivo de las dos principales categorías de inversión llevó a aumentar el peso de la liquidez en cartera, a la espera de que las correcciones en los mercados puedan abrir nuevas oportunidades de inversión.

Aktibo alternatiboen kasuan, posizioak hartzen joateko politika aktiboarekin jarraitu zen. Zehazki, zorroan zor pribatua igo zen (kotizatutako maileguen funtsak eta direct lending). Izan ere, aktibo horiek errentagarritasun-diferentziala mantentzen dute, likidezia faltaren primarengatik eta horien tasak aldakorrak izateak interes-tasen igoeraren kontra babesten gaituelako. Hala, diferentzial horri probetxu atera nahi zitzaion. Aldi berean, higiezinekiko esposizioa handitu zen, Europako higiezin-funtsetan konpromiso berriak hartuz, eta baita private equity eta azpiegiturekiko esposizioa ere.

Mientras tanto, se continuó con la política activa de toma de posiciones en activos alternativos. En concreto, se aumentó el peso de la deuda privada en cartera (fondos de préstamos cotizados y direct lending) para tratar de aprovechar el diferencial de rentabilidad que siguen ofreciendo estos activos por prima de iliquidez y por la protección que, ante eventuales subidas de tipos de interés, supone el carácter variable de sus tipos. Al mismo tiempo se aumentó la exposición a inmuebles con nuevos compromisos en fondos inmobiliarios europeos, así como a las infraestructuras y al private equity.

## Aktiboaren banaketa / Distribución del activo




## Inbertsioak Euskadin/ Zuzeneko inbertsioak / Inversión en Euskadi/Inversiones directas

Ondarearen % 17 Euskadin inbertitu da. Erakundeak aberastasuna sortzen eta ingurune hurbila garatzen lagundu nahi du. Euskadin egindako inbertsio horren partidarik handiena euskal jaulkitzaile publikoen zor tituluetan dago.

Gainera, ORZA AIEan parte hartzen dugu Geroarekin batera. Zuzeneko inbertsio erakundea da eta, euskal enpresa-ehunaren sozietateetan inbertsioak egiteko eratu zen. Konpromiso horri esker, Euskadin aberastasuna eta enplegua sortzen lagundu du Elkarkidetzak.




Un 17 % del patrimonio está invertido en Euskadi. De esta manera la entidad trata de ayudar a la creación de riqueza y al desarrollo del entorno más cercano. La partida más grande de esta inversión en Euskadi está colocada en títulos de deuda de emisores públicos vascos.

Además, participamos junto con Geroa en ORZA AIE, entidad de inversión directa que fue constituida para la inversión en sociedades del tejido empresarial vasco. Fruto de este compromiso desde Elkarkidetza se ha contribuido a la generación de riqueza y empleo en Euskadi

## Inbertsio sozialki arduratsuak / Inversión socialmente responsable

Inbertsio-prozesuan, Elkarkidetzak ingurumenarekin, gizartearekin eta erakundearen gobernuarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen ditu, finantza irizpideez gain, errentagarritasun-arriskua binomioari epe luzerako ekarpena egiteko asmoz.

Inbertsio tematikoaren barruan, garapen bidean dauden herrialdeetan mikrokredituetan egindako inbertsioak eta energia garbietan egindako inbertsioak mantentzen dira.

Elkarkidetza tiene en cuenta en su proceso de inversión aspectos o criterios medioambientales, sociales y de gobierno corporativo además de los criterios financieros, con un objetivo de contribución a largo plazo al binomio rentabilidad-riesgo.

Dentro del apartado de inversión temática se mantienen inversiones en microcréditos en países en vías de desarrollo e inversiones en energías limpias.

## Elkarkidetzaren errentagarritasuna eta pentsio-funtsekin erkaketa / Rentabilidad Elkarkidetza y comparación con fondos de pensiones

Lortutako errentagarritasunak nabarmen gainditu du enplegu planekin 2018an batez beste lortutakoa (% -3,95). Balio igoera horri esker, azken 15 urteotan lortutako errentagarritasun urtekotua % 4,55koa da, eta, hortaz, aise gainditzen du enplegu funtsek lortutako batezbestekoa.

La rentabilidad ha batido claramente a la obtenida de media por los planes de empleo en 2018 que ha sido de -3,95 %. Con esta revalorización, la rentabilidad anualizada lograda en los últimos 15 años se sitúa en el 4,55 %, muy por encima de la media lograda por los fondos de empleo.

| | 15 urte años | 10 urte años | 5 urte años | 3 urte años | 1 urte año |
|---|---|---|---|---|---|
| ELKARKIDETZA | 4,55 % | 4,55 % | 3,37 % | 1,98 % | -2,31 % |
| FUNTSEN batez bestekoa Media FONDOS | 3,05 % | 3,25 % | 1,86 % | 0,20 % | -3,95 % |
| POSIZIOA POSICIÓN | 11/554 | 108/1014 | 45/1126 | 12/1176 | 71/1220 |
| KUARTILA CUARTIL | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |

Indizeekin erkaketa

Emaitza negatiboa lortu bada ere, testuingurua aintzat hartu behar da, aktibo mota guztietan galerak egon baitira.

Comparación con índices

Aunque el resultado obtenido es negativo, hay que tener en cuenta el entorno en el que se ha obtenido, con caídas en todas las clases de activos.

2018ko Errentagarritasuna Rentabilidad 2018

| | |
|---|---|
| ERRENTA ALDAKORREKO INDIZEAK ÍNDICES RENTA VARIABLE | |
| Eurostoxx 50 | -14,34 % |
| Ibex 35 | -14,97 % |
| MSCI WORLD | -10,44 % |
| ERRENTA FINKOKO INDIZEAK ÍNDICES RENTA FIJA | |
| Barclays Global Aggrega | -1,20 % |
| Barclays Global Treasuri | -0,38 % |
| Barclays Global Corpora | -3,57 % |
| Barclays Global High Yield | -4,06 % |
| BESTE INDIZE BATZUK ÍNDICES OTROS | |
| Hedge Fund Research H | -6,72 % |

Inflazioarekin erkaketa

Azkenik, Elkarkidetzaren errentagarritasunak 3, 5, 10 eta 15 urterako inflazioa ere erraz gainditzen du.

Comparación con inflación

Por último, la rentabilidad de Elkarkidetza supera también de forma holgada la inflación a 3, 5, 10 y 15 años.




## DISEINU TEKNIKO BERRIA/ HAMAR URTEKO PROSPEKTIBA

Aurten, AON HEWITT aholkularitzak datozen hamar urterako aurreikusitako aktiboaren eta obligazioaren eboluzioaren azterketa bat egin du.

Azterketa horrek hobetu beharreko alderdiak detektatzen eta erabakiak hartzen lagundu digu, Elkarkidetzaren jasangarritasuna indartu eta arriskuak minimizatzeko xedez.

Azterketa horretan oinarrituz, Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 14an zenbait aldaketa eta jarraibide adostu zituen:

1. Elkarkidetzak erreferentziazko metodologia baten bidez diseinu teknikoa, erakundearen jasangarritasuna eta etorkizuneko konpromisoak etengabe ebaluatzeko konpromisoa hartzen du. Aldian-aldian ALM azterketa bat egingo da, Gobernu Batzordeari diseinu teknikoaren ebaluazio eta birdoitze iraunkorra egitea ahalbidetzeko.

2. Pentsioa kalkulatzeko interes-tasa teknikoa: % 1,75.

3. Mozkinetan parte-hartzea: Mozkinetan parte-hartzea mailakatua izan behar da, eta talde guztiei zuzendutakoa, pentsioa kalkulatzeko erabili diren interes-tasekin korrelazioa mantenduz betiere. Beraz, zenbatekoa murriztu egin behar da talde bakoitzaren arabera.

Mozkinetan parte-hartzea arau hauei jarraikiz egingo da:

· Mugak:

– % 1,75era kalkulatutako errententzat: Min(% 70*(errentagarritasuna-interes teknikoa errentaren kalkulua*1,25); % 1,75)

– % 2,25era kalkulatutako errententzat: Min(% 70*(errentagarritasuna-interes teknikoa errentaren kalkulua*1,25); % 1,20)

– % 3,50era kalkulatutako errententzat: Min(% 70*(errentagarritasuna-interes teknikoa errentaren kalkulua*); % 0,30)

– % 4,00ra kalkulatutako errententzat: Min(% 70*(errentagarritasuna-interes teknikoa errentaren kalkulua*1,25); % 0,10)

· Edonola ere, aurreko ekitaldiren batean lortutako errentagarritasuna pentsioa kalkulatzeko zehaztu den % 25ean areagotutako interes-tasa teknikora iristen ez bada, bazkideak mozkinetan parte hartuko du soilik aurreko ekitaldietako desfase guztia zuzentzen denean eta mozkinetan parte hartzeko mekanismoa berrabiatzea ahalbidetzen duenean.

· Gainera, mozkinetan parte-hartzeko gutxienez % 10eko kaudimena eduki behar da.

· Gobernu Batzordeak mozkinen banaketarako ezarritako arauak eta portzentajeak urtero berrikus ditzake, akordio arrazoituaren bidez.

4. Kaudimena:

· Helburutzat hartu da hamar urtera % 20ko kaudimena lortzea.

· Gobernu Batzordeak erakundearen kaudimenaren bilakaera ebaluatuko du aldizka, eta haren kudeaketaren xedea hamar urtera zehaztutako helburuak betetzea izango da, horretarako behar diren neurri zuzentzaileak ezarriko dituelarik.

## NUEVO DISEÑO TÉCNICO / PROSPECTIVA 10 AÑOS

Este año se ha realizado, por la firma AON HEWITT, un estudio para los próximos diez años que determina la evolución esperada del activo y de la obligación.

Dicho estudio nos ha permitido detectar aspectos a mejorar y adoptar decisiones con el objetivo de contribuir a minimizar los riesgos y fortalecer la sostenibilidad de Elkarkidetza.

En base a su análisis, el 14 de diciembre de 2018 la Junta de Gobierno acordó una serie de modificaciones y pautas que se desarrollan a continuación:

1. Elkarkidetza asume el compromiso de evaluación permanente y conforme a una metodología de referencia sobre su diseño técnico, la sostenibilidad de la Entidad y de sus compromisos futuros. De manera periódica se realizará un estudio ALM que permita a la Junta de Gobierno la evaluación y reajuste permanente del diseño técnico.

2. Tipo de interés técnico para el cálculo de la pensión: 1,75 %.

3. Participación en beneficios: la Participación en Beneficios tiene que ser progresiva y para todos los colectivos, manteniendo siempre una correlación con los tipos de interés con los que se les ha calculado la pensión, lo que requiere limitar su cuantía en función de los distintos colectivos.

Por todo ello la participación en beneficios atenderá a las siguientes reglas:

· Límites:

- Límite para rentas calculadas al 1,75 %: Min (70 %*(rentabilidad-interés técnico cálculo renta*1,25); 1,75 %)

- Límite para rentas calculadas al 2,25 %: Min (70 %*(rentabilidad-interés técnico cálculo renta*1,25); 1,20 %)

- Límite para rentas calculadas al 3,50 %: Min (70 %*(rentabilidad-interés técnico cálculo renta*1,25); 0,30 %)

- Límite para rentas calculadas al 4,00 %: Min (70 %*(rentabilidad-interés técnico cálculo renta*1,25); 0,10 %)

· En todo caso, cuando en alguno o algunos de los ejercicios anteriores la rentabilidad obtenida no hubiera alcanzado el tipo de interés técnico fijado para el cálculo de la pensión incrementado en un 25 %, la participación en beneficios sólo se generará cuando se haya corregido en ejercicios posteriores todo el desfase producido en el pasado que permita reiniciar el mecanismo de participación en beneficios.

· Además, la participación en beneficios estará condicionada a un nivel mínimo de solvencia del 10 %.

· Las reglas y los porcentajes establecidos para el reparto de beneficios podrán ser revisados anualmente por la Junta de Gobierno mediante acuerdo motivado.

4. Solvencia:

· Se fija como objetivo Nivel de solvencia a diez años el 20 %.

· La Junta de Gobierno realizará una evaluación periódica de la evolución de la solvencia de la Entidad, orientando su gestión al cumplimiento de los objetivos fijados a diez años y estableciendo las medidas correctivas que sean precisas.

**5. Prestazioen kalkulurako talde-hipotesiak.** Honela zehaztuko **dira:**

a. Gizonen proportzioa % 80 eta emakumeena % 20

b. Egoera zibila. Ezkonduak: % 90

c. Bi pertsonen adinen arteko aldea, aldaketarik gabe. 1. pertsona gizona bada, aldea -3 urtekoa da. 1. pertsona emakumea bada, aldea 3 urtekoa da.

**6. Barne-arauak egokituko dira.** Barne-arauak berritu egin behar ditugu aipaturiko aldaketak indarrean sartu aurretik. Eta, xede horrekin, dagokion proposamena 2019ko martxoaren 1eko Gobernu Batzordean aurkezten da.

**7. Batzarrari informatzea.** Urteko Ohiko Batzarrean, 2019ko martxoaren 29an, erabaki horien berri eman da.

**5. Hipótesis colectivas en el cálculo de las prestaciones.** Quedarán fijadas del siguiente modo:

a. Proporción de hombres 80 % y mujeres 20 %

b. Estado civil: proporción de casados: 90 %

c. Diferencia de edad entre las dos cabezas, sin cambios. Si la 1ª cabeza es un hombre la diferencia de edad es -3 años. Si la 1ª cabeza es una mujer la diferencia de edad es 3 años.

**6. Adecuación de las normas internas.** Para la entrada en vigor de las citadas reformas deberá procederse a la reforma de nuestras normas internas. A estos efectos se presenta en la Junta de Gobierno de 1 de marzo de 2019, la correspondiente propuesta.

**7. Información a la Asamblea.** De todas estas decisiones se informa en la Asamblea anual ordinaria del 29 de marzo de 2019.

## Beste jarduera ildo batzuk

**Elkarkidetzak hizkuntza-politikaren tratamendua balioan jarri du.**

Kanpo-azterketaren ostean, Erakundeak abenduan Bikain ziurtagiria jaso zuen, euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatzen duena.

Etengabeko Hobekuntzaren eremuan ohiko zereginekin jarraitu dugu eta ISO 9001:2015 jarraipeneko ebaluazioa zero desadostasunekin gainditu dugu.

Lehen esan bezala, Elkarkidetzaren Gobernamendu Onaren Politika, Compliance Penala eta Arriskuen Kudeaketa ISO 9001:2015 ziurtagiriarekin eta Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekin koordinatzeko lan egiten dugu. Gure xedea hiru kudeaketa-sistemak lerrokatzea da, Elkarkidetzaren berezko kudeaketa-eredu bat sortzeko.

## Otras líneas de actuación

**Puesta en valor del tratamiento de la Política Lingüística por Elkarkidetza.**

Tras una evaluación externa, la Entidad obtuvo en diciembre el certificado Bikain, que reconoce el nivel de normalización del uso, presencia y gestión lingüística del euskera en la Entidad.

Hemos continuado en el ámbito de la Mejora Continua con las tareas habituales y tras presentarnos a la evaluación de seguimiento ISO 9001:2015, se ha logrado con cero no conformidades.

Como ya se ha adelantado, se trabaja para que la Política de Buen Gobierno de Elkarkidetza, Compliance Penal y Gestión de Riesgos se coordine con el Modelo de Gestión Avanzada e ISO 9001:2015. Nuestro objetivo es alinear los tres sistemas de gestión para crear un modelo de gestión propio de Elkarkidetza.

## Aktiboa Activo

| | 2018 |
|---|---|
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk<br>Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 100.996 |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza aktiboak<br>Activos financieros mantenidos para negociar | 301.514 |
| Galeretan eta irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten beste finantza aktibo batzuk<br>Otros activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias | 387.761 |
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak<br>Préstamos y partidas a cobrar | 51.635 |
| Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak<br>Inversiones mantenidas hasta el vencimiento | 184.162 |
| Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan<br>Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias | 9.293 |
| Ibilgetu ukiezina<br>Inmovilizado intangible | 0 |
| Partaidetzak elkarteko erakundeetan eta kideetan<br>Participaciones en entidades del grupo y asociadas | 54.049 |
| GUZTIRA AKTIBOA<br>TOTAL ACTIVO | 1.089.410 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude

Cantidades expresadas en miles de euros

## Pasiboa eta ondare garbia Pasivo y patrimonio neto

| | 2018 |
|---|---|
| Pasiboa<br>Pasivo | |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza pasiboak<br>Pasivos financieros mantenidos para negociar | 0 |
| Debituak eta ordaindu beharreko partidak<br>Débitos y partidas a pagar | 499 |
| Zuzkidura teknikoak<br>Provisiones técnicas | 1.063.029 |
| PASIBOA GUZTIRA<br>TOTAL PASIVO | 1.063.528 |
| Ondare Garbia<br>Patrimonio Neto | |
| Funts propioak<br>Fondos propios | 25.882 |
| Mutuaren funtsa<br>Fondo mutual | 9.015 |
| Erreserbak<br>Reservas | 31.728 |
| Ekitaldiaren emaitza<br>Resultado del ejercicio | -14.861 |
| ONDARE GARBIA GUZTIRA<br>TOTAL PATRIMONIO NETO | 25.882 |
| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA<br>TOTAL PASIVO Y PATRIMONIO NETO | 1.089.410 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Emaitzen kontua Cuenta de resultados

| | 2018 |
|---|---|
| Ekitaldiari inputaturiko kuotak, berraseguruko garbiak<br>Cuotas imputadas al ejercicio, netas de reaseguro | 43.930 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak<br>Ingresos del inmovilizado material y de las inversiones | 8.821 |
| Beste sarrera tekniko batzuk<br>Otros ingresos técnicos | 107 |
| Ekitaldiko prestazioak, berraseguruko garbiak<br>Prestaciones del ejercicio, neta de reaseguro | -33.000 |
| Berraseguruko beste zuzkidura tekniko garbien aldaketa<br>Variación de otras provisiones técnicas netas de reaseguro | -9.596 |
| Ustiapen gastu garbiak<br>Gastos de explotación netos | -2.678 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak<br>Gastos del inmovilizado material y de las inversiones | -31.580 |
| Aparteko gastuak<br>Gastos excepcionales | 0 |
| USTIAPEN EMAITZAK % -2,31KO ERRENTAGARRITASUNA<br>RESULTADOS DE EXPLOTACIÓN - RENTABILIDAD -2,31 % | -23.996 |
| Zuzkidura aktuarialerako ekitaldiko hornidura<br>Dotación ejercicio provisión actuarial | -8.910 |
| Definituriko ekarpen zuzkidurako ekitaldiko hornidura<br>Dotación ejercicio provisión aportación definida | 18.045 |
| EKITALDIAREN EMAITZA<br>RESULTADO DEL EJERCICIO | -14.861 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Estadura tasa, ekitaldiko emaitza-banaketaren ondoren
## Tasa de cobertura después de la distribución del resultado del ejercicio

| | | 2018 |
|---|---|---|
| PASIBOAK / PASIVOS | | |
| | Mutuako funtsa<br>Fondo Mutual | 9.015 |
| | Erreserbak eta beste hornidura tekniko batzuk<br>Reservas y otras provisiones técnicas después del reparto | 16.297 |
| | GUZTIRA<br>TOTAL | 25.312 |
| | Pasiboen hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas de pasivos | 288.943 |
| | Pasiboen estaldura<br>Cobertura de pasivos | 8,76 % |
| | Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa (%4)<br>Exceso sobre el mínimo legal exigido (4 %) | 4,76 % |

| | | 2018 |
|---|---|---|
| AKTIBOAK / ACTIVOS | | |
| | Aktiboen segurtasun marjina<br>Margen de seguridad de activos | 889 |
| | GUZTIRA<br>TOTAL | 889 |
| | Aktiboen hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas de activos | 773.770 |
| | Aktiboen estaldura<br>Cobertura de activos | 0,12 % |
| | Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa (% 0,0375)<br>Exceso sobre el mínimo legal exigido (0,0375 %) | 0,08 % |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Kontu-ikuskaritza — Informe de auditoría



KPMG Auditores, S.L.
Torre Iberdrola
Plaza Euskadi, 5
Planta 17
48009 Bilbao

**Informe de Auditoría de Cuentas Anuales emitido por un Auditor Independiente**

A la Asamblea General de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria de Empleo

**Opinión**

Hemos auditado las cuentas anuales de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria de Empleo (la Entidad), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2018, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2018, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2(a) de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

**Fundamento de la opinión**

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales de nuestro informe.

Somos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

KPMG Auditores S.L., sociedad española de responsabilidad limitada y firma miembro de la red KPMG de firmas independientes afiliadas a KPMG International Cooperative ("KPMG International"), sociedad suiza. Paseo de la Castellana, 259C 28046 Madrid

Inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas con el nº.S0702, y en el Registro de Sociedades del Instituto de Censores Jurados de Cuentas con el nº.10. Reg. Mer Madrid, T. 11.961, F. 90, Sec. 8, H. M -188.007, Inscrip. 9 N.I.F. B-78510153

### Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria de Empleo (la Entidad), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2018, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2018, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2(a) de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

## 2019KO KUDEAKETA PLANA

2019an, Kudeaketa Planak ekintza-plan hauek jasotzen ditu:

I) Komunikazio kanpaina bazkideei eta erakunde sindikatuen inplikazioa.

II) 2020-2024 Plan Estrategikoa prestatzea.

III) Gizarte-digitala: Harrera digitala eta bazkideen kontsulta eta eskaera ereduak.

IV) Hizkuntza-kudeaketa eta Kudeaketa Aurreratua.

V) Ekarpenak % 7an egiten dituzten erakundeen kopurua areagotzea.

VI) Arriskuen Kudeaketa: Ebaluazioa eta monitorizazioa.

VII) Funtzio gakoen txostenak: Aktuariala, Arrisku Kudeaketa eta Barne Ikuskaritza.

## PLAN DE GESTIÓN 2019

Durante el año 2019 el Plan de Gestión contempla los siguientes Planes de Acción:

I) Campaña de comunicación a personas asociadas e implicación de instituciones y sindicatos.

II) Elaboración del Plan Estratégico 2020-2024.

III) Sociedad Digital: prototipo atención digital consultas y solicitudes de socios y socias.

IV) Gestión lingüística y la Gestión Avanzada.

V) Incremento instituciones con aportación al 7 %.

VI) Gestión de Riesgos: Evaluación y monitorización.

VII) Informes Funciones Clave: Actuarial, Gestión de Riesgos y Auditoría interna

## DISEINU TEKNIKO BERRIA/HAMAR URTEKO PROSPEKTIBA

Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 14an diseinu teknikoari buruz erabakitakoa 2019an ezarriko da. Hain zuzen:

• **Barne-arauak egokituko dira.** Adostutako aldaketa horiek prestazioen arautegian eta ohar teknikoan jaso behar dira, Gobernu Batzordeak onartzeko gero. Proposamena 2019ko martxoaren 1eko Gobernu Batzordean aurkezten da.

• **Batzarrari jakinaraztea.** 2019ko martxoaren 29ko Batzarrak informazio osoa jaso du Gobernu Batzordeak hartutako erabakiei buruz.

• **Prestazioen araudian egindako aldaketak eraginkorrak** izan daitezen, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren edo, hala badagokio, hura eskuordetzen duen organoaren baimena beharko da, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Erregistroan jaso beharko dira.

## NUEVO DISEÑO TÉCNICO/PROSPECTIVA 10 AÑOS

En el año 2019 se implantará el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno el 14 de diciembre de 2018 sobre el diseño técnico. En concreto se:

• **Adecuarán las normas internas.** Las modificaciones acordadas deben incluirse en el Reglamento de prestaciones y nota técnica para su aprobación por la Junta de Gobierno. Se presenta la propuesta en la Junta de Gobierno del 1 de marzo de 2019.

• **Información a la Asamblea.** La Asamblea del 29 de marzo de 2019 recibe toda la información de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno.

• **La efectividad de la modificación del Reglamento de prestaciones** requerirá de la autorización administrativa del Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco u órgano que en su caso lo sustituya, así como de su inscripción en el Registro de Entidades de Previsión Social Voluntaria de Euskadi.

## INBERTSIOEN POLITIKA

2019a ziurgabetasunez betetako urtea izango da.

Batetik, azken hilabeteotan desazelerazio ekonomiko orokorrarekiko kezka nabarmen areagotu da.

Ekonomiaren eta merkatuen bilakaeran beste faktore erabakigarri bat Donald Trumpen Gobernuak hasitako gerra komertzialak izan daitezke.

Aintzat hartu beharreko hirugarren faktorea diru-pizgarriak kentzearena da. Horrez gain, Banku Zentral nagusiek beren balantzeak pixkanaka murrizten joateko asmoa dute.

Azkenik, merkatuek hegakortasun gehiago erakutsiko dute pasadan urteetan baino, eta arrisku-prima handiagoa exijituko dute.

Ikuspegi horrekin, Elkarkidetzak zorro-estrategia zuhur samarra mantenduko du. Zorroan likidezia maila altua mantentzen saiatuko gara, merkatuko aldaketek murrizketa-uneetan prezio erakargarriagoan erostea ahalbidetuko diguten itxaropenarekin.

## POLÍTICA DE INVERSIONES

2019 se presenta como un año lleno de incertidumbres.

Por un lado, en los últimos meses ha aumentado claramente la preocupación por la desaceleración económica global.

Otro aspecto que puede ser determinante en la evolución de la economía y los mercados son las guerras comerciales iniciadas por el Gobierno de Donald Trump.

El tercer aspecto a considerar es el de la retirada de estímulos monetarios, con la intención de los principales Bancos Centrales de seguir reduciendo progresivamente sus balances.

Por último, los mercados continuarán mostrando más volatilidad que en años anteriores y seguirán exigiendo una prima de riesgo más alta.

Con este panorama, Elkarkidetza seguirá con una estrategia de cartera relativamente prudente. Se intentará mantener un peso alto de liquidez en cartera a la espera de que los vaivenes del mercado nos permitan realizar compras a precios más atractivos en momentos de recortes.

| Aktibo mota<br>Tipo Activo | Pisu<br>Peso | Errentagarritasuna<br>Rentabilidad | PxE<br>PxR |
|---|---|---|---|
| **Errenta finkoa** Renta fija | 45,5 % | 2,5 % | 1,2 % |
| **Likidezia** Liquidez | 10 % | 0 % | 0 % |
| **Errenta aldakorra** Renta variable | 25 % | 3,8 % | 0,9 % |
| **Partaidetuak** Participadas | 4,5 % | 3 % | 0,1 % |
| **Higiezinak** Inmuebles | 4,5 % | 2,7 % | 0,1 % |
| **Aktibo espezializatuak** Activos especializados | 5 % | 1,3 % | 0,1 % |
| **Bihurgarriak** Convertibles | 3,5 % | 1,7 % | 0,1 % |
| **Egituratuak** Estructurados | 2 % | 1,7 % | 0 % |
| **Aurreikusitako batez besteko errentagarritasuna**<br>Rentabilidad media esperada | 100 % | 2,5 % | 2,5 % |

## Administrazio-gastuak

2019rako administrazio-gastuak kalkulatu ondoren, ikusi dugu ez dutela Prestazioen Arautegi honen 14. artikuluan ezarritako muga gaindituko (% 0,32 administrazio-gastuetan eta % 0,33 komisio inplizituetan inbertsio kolektiboko instituzioetako edo arrisku-kapitaleko erakundeetako inbertsioetan).

## Gastos de administración

Calculados los gastos de administración para el año 2019 se indica que no superarán el límite máximo establecido en el artículo 14 del Reglamento de prestaciones (gastos de administración 0,32 % y comisiones implícitas en inversión en IIC o ECR 0,33 %).

## Ekarpen eta gutxieneko pentsioen eguneratzea 2019rako

2018ko abenduaren 14ko Gobernu Batzordeak, erakundeko erregelamenduaren aplikazioan, 2019rako zenbatekoak eguneratu ditu, ondorengoak direlarik:

## Actualización de aportaciones y pensiones mínimas para el año 2019

La Junta de Gobierno del 14 de diciembre de 2018, en aplicación del reglamento de la Entidad, ha procedido a actualizar los importes para el año 2019, que son los siguientes:

EKARPENAK (14 kuota) — APORTACIONES (14 cuotas)

Arruntak hilerokoak — Ordinarias mensuales

| Taldea Grupo | Oinarriak Bases | 7 % | 6 % |
|---|---|---|---|
| A1 | 50.311,33 | 125,78 € | 107,81 € |
| A2 | 41.085,33 | 102,71 € | 88,04 € |
| C1 | 33.702,67 | 84,26 € | 72,22 € |
| C2 y EP | 28.172,67 | 70,43 € | 60,37 € |

| Gehigarriak | Adicionales | |
|---|---|---|
| Urteko gehiengoa | Máximo anual | 4.153 € |

GUTXIENEKO PENTSIOAK (14 ordainketa)

- Hileroko gutxieneko pentsioa, 12. artikulua: 105 €.
- Hileroko gutxieneko pentsioa, Bigarren Xedapen Gehigarria: 62 €.

PENSIONES MÍNIMAS (14 pagos)

- Pensión mínima mensual Artículo 12: 105 €.
- Pensión mínima mensual Disposición Adicional Segunda: 62 €.



## Gobernu Batzordeak gehiengoz hartutako akordioak

- 2018ko abenduaren 14; Inbertsio printzipioen deklarazioaren onartzea.
- 2019ko martxoaren 1; 4, 5, 6, 8, 10, 12, 14, 18, 20, 23, 26, 29 eta Bigarren Xedapen Gehiagarriaren, Bosgarren, Hamargarren eta Azken Xedapen Iragankorraren artikuluen onarpena eta Prestazioen Erregelamenduaren testu bateginaren onarpena ondorioz (*).

## Acuerdos adoptados, por mayoría, por la Junta de Gobierno

- El 14 de diciembre de 2018; aprobación de la declaración de principios de inversión.
- El 1 de marzo del 2019; aprobación de los artículos 4, 5, 6, 8, 10, 12, 14, 18, 20, 23, 26, 29, Disposición Adicional Segunda, Disposición Transitoria Quinta, Décima y Disposición Final y, consiguiente aprobación del texto refundido del Reglamento de prestaciones (*).

## 2019ko martxoaren 29ko Ohiko Batzar Nagusia

Gehiengoz harturiko akordioak:

- Gobernu Batzordearen Kudeaketa, Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta 2018ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiaren emaitzen banaketaren onarpena.
- 2019ko Kudeaketa Plana eta aurrekontuaren onarpena.
- Estatutuen 13, 14, 55, 56 eta 57 artikuluen eta ondorioz Estatutuen testu bateginaren onarpena (*).

Gobernu Batzordearen informazioa Batzar Nagusiari:

- Diseinu tekniko/Hamar urterako prospektibaren berri emate: Prestazioen Erregelamenduaren aldaketa.
- Inbertsio printzipioen adierazpenaren berri ematea.

## Asamblea General Ordinaria del 29 de marzo de 2019

Acuerdos adoptados por mayoría:

- Aprobación de la Gestión de la Junta de Gobierno, las Cuentas Anuales, el Informe de Gestión y la propuesta de distribución del resultado del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2018.
- Aprobación del Plan de Gestión y del presupuesto para el ejercicio 2019.
- Aprobación de los artículos 13, 14, 55, 56 y 57 de los Estatutos, y consiguiente texto refundido de Estatutos (*).

Información de la Junta de Gobierno a la Asamblea General:

- Información sobre el Diseño técnico/Prospectiva diez años: modificación del Reglamento de Prestaciones.
- Información de la Declaración de principios de inversión.




*(*) Web orrian eskuragarri.*

*(*) Disponible en la web.*

**ARRETA**
**HOBEA IZATEKO**
# hitzordua eskatu



**PARA UNA**
**MEJOR ATENCIÓN**
# pide cita previa


elkarkidetza®
pentsioak
enpleguko BGAE
EPSV de empleo



**ARABA/ÁLAVA**
Ramón y Cajal, 7-9
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 14 11 41

**BIZKAIA**
Gardoqui, 2
48008 Bilbao
Tel.: 94 415 55 78

**GIPUZKOA**
Mendeurren Plaza, 6
20006 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 43 02 56

**www.elkarkidetza.eus**